

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

2019ko otsailaren 21eko osoko bilkuraren erabakiaren laburpena, zeinaren bidez onetsi baitzen kultur, kirol eta gizarte arloetako dirulaguntzak emateko 2019ko deialdia

BDNS(Identif.): 441289

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3 b) eta 20.8 a) artikuluetan ezarritakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena; testu osoa Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean kontsultatu daiteke: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa: onuradunak

Dirulaguntza eskatu ahal izango du irabazteko xederik gabeko edozein elkarte eta/edo partikularrek, baldin eta interesa badu kultur, kirol eta gizarte programak edo jarduerak sustatzeko 2019an zehar, Aiarako udalerrri osorako onura publikoko edo gizarte intereseko jardunak sustatzea dutenak helburu, betiere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, onuradun izan ahalko dira Etxaurren Ikastolako eta Aiaran egoitza duten ikaste-txeetako ikasleen Guraso Elkarateak, betiere deialdiaren helburuak badituzte eta dirulaguntzen xedea bada ikasketez kanpo antolatutako jarduerak ordaintzea.

Halaber, Olentzero eta Erregeen desfilea ospatzeko dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte administrazio batzarrek, baldin eta deialdiaren helburu berberak badituzte.

Bigarrena: xedea

Udal programen programa osagarriak garatzea, kultur, kirol eta gizarte jarduerak dakartzatenak, baldin eta jarduera publiko edo gizarte intereseko jardunak sustatzeko helburua badute.

Hirugarrena: oinarri arautzaileak

ALHAOn argitaratuko dira, bai eta BNDSn ere.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiaarakoudala.eus.

Laugarrena: zenbatekoa

Deialdia 35.000 euroekin dago hornituta.

Elkarateek, 2019an jarduerak eta proiektuak egiteko, gehienez ere 6.000,00 euro eskatu ditzakete.

Bosgarrena: eskaerak aurkezteko epea

Hilabete, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Seigarrena: beste datu batzuk

Eskabidea aurkeztean, hari dagozkion eranskinak beteta aurkeztu beharko dira, eta justifikagiria aurkezten denean, justifikazioari dagozkionak.

Justifikagiria 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen (egun hori barne) aurkeztu beharko da.

Aiara, 2019ko otsailaren 25a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA